

Katalogo berri honetan, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak dokumentu-sorta paregabe batean sakontzeko eta sorginkeriaren mundu zirrargarrian murgiltzeko gonbita egiten digu, besteak beste, lurralde honetan izan zuen eraginarengatik, mendeetan zehar bertakoen eta arrotzen arreta deitu duen fenomeno baita. Hain zuzen ere, XIV. mendetik aurrera, Nafarroako auzitegi-tako prozesu judizialek, haren funtsetan gordetzen direnek, sorginkeriak erresumako hainbat txokotan izandako bilakaeraren lekukotza ematen dute oso modu eskuzabal eta luzean, XVII. mendera arte hedatu ziren izu-bolada batzuen bidez. Hori eta 1370eko auziaren seigarren mendeurrena –dokumentu paregabea, animalien metamorfosia edo akerrarekin izandako bilkurak aipatzen dituen Europako lehen testuetako bat– nahikoa arrazoi izan ziren erakusketa antologiko bat egiteko. 2020ko uztaietan ireki zituen ateak, pandemiak eragindako geldialdiaren ondoren kultura-erakundeek dibulgazio-lanari berriro ekiteko ahalegina egin zuten garai batean.

Hori dela eta, Nafarroako erresuma sorginkeria ikertzeko agertoki pribilegiatu bilakatu da, eta arlo horretan itzal handiko espezialistak izateko zortea izan du: Julio Caro Baroja, Florencio Idoate, Gustav Henningsen eta Espainiako, Europako eta Amerikako historialari ugari erakarri ditu

iturri dokumental bikain horrek. Jesús M. Usunáriz Nafarroako Unibertsitateko Historia Modernoko irakaslea arduratu da erakusketaren komisario-lanak egiteaz eta katalogo hau ontzeaz, erronka bikoitz batekin: batetik, historian luzaroan Nafarroako erresumako bizikidetzak astindu zuen zentzugabekeria azaltzea; eta, bestetik, Europako testuinguruari eutsita egitea, testuinguru horrek hemen gertatutakoa azaltzen eta argitzen laguntzen baitu.

Informazioz jositako milaka orri prozesal pazientziaz irakurri ditu eta, horri esker, Nafarroako Errege Artxibo Orokorrak zaintzen duen dokumentu-aberastasunaren laburpen bikaina eskaini du. Kontserbatzen diren iturrien sorta hain zabala izanik guztiak erakustea ezinezkoa denez gero, komisarioak dokumentu esanguratsuenen aukeraketa bat egin eta pasarte garrantzitsuenak laburbildu ditu sorginkeriaren fenomenoak auzitegi, salatzaile eta biktimen artean izan zuen garrantzia ulertarazteko. Era horretan, lekukotasun historikoetara zuzenean jotzeko abagune aparta eskaintzen digu, kontinente osoan gertatu zen bezala, bere orrialderik ilunenak femeniñoan idatzi zituen sorginkeria bertatik bertara ezagutzeko. Emakumeak izan ziren, gehienbat, sorgin ehizaren ondorioak pairatu zituztenak, akusatuen zerrendan duten presentzia garrantzitsuak adierazten duen moduan.

Aztertutako testuek jokabideak, jarrerak eta pentsamoldeak islatzen dituzte, komunitatean sortutako zurrumuruen berri ematen dute, akusatu eta lekukoen aitorpenak eta alegatuak erregistratzen dituzte, argi eta gordin eskaintzen dituzte alkate eta epaileek sustatuko ikerketa judizialak, bai eta tormentua aplikatzeak eragiten zituen ondorio auresangarriak ere. Horrek guztiak –ebidentziak, probak, lekukotzak, adierazpenak– jazotako gertakarien, irudikatutako gertakarien eta emandako epaien kontaketa xehea eskaintzen digu. Alabaina, hainbat figura harrigarri ezagutzeko aukera ere ematen digu, Alonso de Salazar y Frías inkisidorea esaterako –Gustav Heeingsen-en hitzetan, “sorginen abokatua”–, arrazionaltasunak gidatuta, sorginkeria ulertzeko modu berri bat ezarri baitzuen Inkisizioan, postulatu eszeptikoagoetan oinarrituta, Europako beste txoko batzuetan gertatu zenaren kontrara, non kausak eta exekuzioak ugaritu egin ziren.

Horregatik guztiagatik, liburu hau, erakusketa baten katalogo hutsa baino gehiago, erreferentziazko lana da, Nafarroan sorginkeriarri buruz pilatutako ezagutza historiko guztiaren sintesia, eta aspalditik izan nahi genuen gogoeta definitibo gisa aurkezten da, zalantzarik gabe, interesatutako publiko guztia aseko duena. Modu zuzen eta kartsuan idatzitako testu hau irakurrita hainbat ideia nagusi atera-

tzen dira. Lehenik eta behin, Nafarroako Errege Artxibo Orokorra sorginkeria aztertzeke Europako artxibo nagusietako bat da. Bigarrenik, sorgin ehizaren adierazpen eta irudikapen askotarikoak dokumentatzeko aukera ematen dute haren iturriek Nafarroarako, garai kronologiko bereziki luze batean, oso goiz hasten dena. Azkenik, baina aurrekoak bezain garrantzitsua dena, bai erakusketak, bai katalogoak gure iraganari buruz eta belaunaldiz belaunaldi gaurdaino iritsi arte ahalegin handiz eraikitzen joan garen gizarteari buruz hausnartzen laguntzen digute. Gizarte gero eta justuagoa, askeagoa, berdinzaleagoa, eta, gure historian kapsulatua eta berpizteko aukerarik gabe, zentzugabekeriaren islarik lazgarriena atzean utzi duena.

**Rebeca Esnaola Bermejo**

Kultura eta Kiroleko kontseilaria  
Nafarroako Gobernua